

Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

## Paraliturgia

**Z**ertaz ari naizen ulertzeko, hitza esplikatu beharko zioagu jendeari, ezta, Joxan?

(Joxan Ormazabal zenak sarritan aipatzen zuen “paraliturgia”, adierazteko era guztietako ospakizun, ekitaldi eta zeremonietan izaten zen protokoloa, bateko hitzaldi, besteke bertso edo dantzari, txalaparta eta txistulari. Hitzak agerian du adar-soinu ironikoa, eta balio du, besteak beste, Ormazabalen nortasun aberatsa sumatzen laguntzeko: onkote, alai, bihotz handiko, umezale... horrela marraztu dugu eta egia da halakoxea zela; baina bazituen beste zenbait alderdi ere: tristura lanbrotsu melankoliko bat, baseritarraren eszeptizismo disimulatua, mikatz punttu bat inoiz; inor ez baita pieza bakarreko izakia).

Ez diat galdetuko zer moduz habilen alde-aldi horretan, egoskor segitzen diat neure sinesgabeziari. Alde-aldi honetakook, berriz, asko akordatzuten gaituk hirekin. Bakarka gehienetan, hire hitz, jarrera, barreak gogora ekarrita; lagurtean ere bai sarri, hire txiste, esaera eta pasadizoak elkarri komentatuta; eta talde handiagotan ere bai tarteka, bateko eta besteke omenaldiak direla eta.

Hainbeste paraliturgia sortu behar huela jakin



DANI BLANCO

bahu, igual ez huen ezegiteko hura egingo, hi beti isilka eta inori trabarik sortu gabe ibiltzeko zalea izaki. Joan den udazkenean mendira egin genian txangoa, hire senide, lankide eta beste lagun batzuek, hire amaren eta heure erraustak dautzan bazter zoragarri horretara; hantxe egin genian antzerki txiki bat, bildutako bakoitzak hire testu-txatal bat irakurtzen zuela, eta gero denak bazkaltzera; hiri ere gustatuko zitzaian, ikusterik izan bahu.

Abenduan, berriz, badakik nola estimatzen hauten Seguran, bada, aurtengo beren liburu azokatxoaren inaugurazioan ere hitz batzuk egin behar, hire oroigarri. Ez hadi izutu, laburra eta umoretsua izan zuan eta.

Orain, aldiz, menditik hartutako harri-potor bat jarri nahi ditek Zegamako kultur etxearen ondoan, hire omenezko plaka kokkor batekin, eta harri hori aukeratzen ibili gintuan Urteberri bigarreanean, Aizkorpeko hire gogoko paraje horietan.

Gustura ibiliko hintzen hi ere, orbel artean gora eta behera.

Beldur nauk, hurrengo hilabeteetan paraliturgia gehiago ez ote dugun izango. Alferrik egingo duk protesta. Ez zaiguk ailegatuko. Eta gu oraindik asko akordatzuten gaituk hirekin, Joxan. Askok. ■

«  
Ez diat galdetuko zer moduz  
habilen alde-aldi horretan, egoskor  
segitzen diat neure sinesgabeziari.  
Alde-aldi honetakook, berriz, asko  
akordatzuten gaituk hirekin  
»

## TXANDAN

Igor Estankona



Arratia inguruko hiztegia, alegia. Mortala –Angel Larrea eta Juntxu Rekalde buru– arratieraren hiztegiaren inguruan urteokaz egin duten lana. Geure Berbage proiektuaren baitan hainbat jendek azpieuskalkiaren bibliografia osoa hustu du, elkarrizketa mordoa egin, aditza aztertu, adibideak jarri, berrehun argazki bildu... 25.000 sarreradun hiztegi itzela izan da emaitza, gure berbakuneri, bizkaierari eta batuari egindako oparia. Sakon jarritz gero, betirako munduari egindako oparia.

Esan eta esan gabilta bizkaieratik gure ekarpena

## Arratiako

egin behar diogula hizkuntza bizi, aberats, modernoari. Nabardurak, esakuneak, lokuzioak, sinonimoak zein aldakiak, horiek guztiak euskararen osasunaren adierazgarri badira, hemendik aurrera baliabide bat gehiago daukagu guztiok. Galdakaotik Zeanurirainoko haranen tolesduretan gordetako altxorra da hau. Bertakook ere ez dugu baloratu izan altxor hori askotan, baina hor daude, esate baterako, pitxikoletea, txirripitona, mitxiloitea, mitxilotoia, eskabie, txilipotadea, pitxiloitea, txirripitea, bitxilokotea, txilipitañea, sorgin-bitxie, zeruko katue... tximeleta esateko modu batzuk baino ez, hiztegi eder honetara ekarriak. ■